

## AZTIA

Itxaso Aiesta

*Bedia, 15 urte*

*“Ez zen Akelarrerik egon. Hodeien azpiko eta sasi-  
en gaineko hegaldirik inoiz ez zen esistitu. Sorginkeriek ez  
zuten indarririk are gutxiago banpirismoek. Satanengan  
sinesten dutenak gutxi, edo hobe esanda, egon ere ez  
daude. Akerra, edo beste era batera esanda, sorginen  
jainkoa berauen zeremoniatan gertu al zegoen? Hitz gu-  
txitan esanda sorginkeria ez zen inongo txokotan eman,  
behintzat Euskal Herrian.*

*Sorginen aurkako erlijioak badaude, torturak ere sor-  
ginkerien kausa bat ziren eta beldurrak etxe guztietan  
'tokitxo' handia zeukan. Jendeak aztiengan sinestu zuen  
eta sorgin balizko guztiak baliogabeak ziren indar magi-  
koak lortu zituzten. Persona batzuk oraindik sorginen-  
gan sinesten dute eta beste batzuk belagileak direla uste  
dute oraindik'. Hauek nire usteak dira eta nire usteetan  
inork ez du agintzen.”*

Horrela agertu zen Mari Euskal Unibertsitateko  
berbaldian 1925 ean. Mari antropologian lizentzia-  
tu berria zen eta kriston notekin gainera, baina hi-  
tzaldiak sekulako zirrara sortu zuen ikasle, ikusle,  
irakasle eta zuzendariaren artean. Eta unibertsita-  
teko buru guztiak ez zeuden prest irain hura jaso-  
tzeko.

Halako batean ikusle batek bi aldiz pentsatu  
gabe, “deabruak eraman zaitzala Anboto mendiko  
puntara” esan eta inork hitzegin ez zuen pausaldi

hartan Luzifer etorri eta 25 urteko gaztea agindutako mendira igorri zuen, Mari, jada, sorgina zen. Sorginen burua.

Momentu latzak izan ziren eta denbora gutxiren buruan, mundu guztiak alde egin zuen soin-hezkuntzako lekutik airean zegoen tentsio hartatik ihesian.

Hiru urteko aldia igaro ondoren, basoan zehar zihoazen bi anaia, ehiztariak biak, eta neska bat lurrean egurra biltzen ikusi zuten. Harrituta geratu ziren biak. Neskatzak ez ziren begirik kentzen gainetik eta honek urduriago jartzen zituen gizonetakoak. Une handi bat isilean igaro ondoren, galdetu zuen anaia zaharrenak:

– Non bizi zara?

Neskatoak Anboto begiratu eta seinalatu zuen.

– Non daude zure gurasoak? –jarraitu zuen galdezka ehiztariak.

Neskatzak ez zuen txintik ere ateratzen. Urduri zegoen eta ez zeukan arrotzekin ezta ezagunekin mintzatzeko gogorik, beraz, birritan pentsatu gabe, eskuak gurutzatu eta su birla baten barruan mui-nora igo zen xiztu bizian. Anaien aurpegiaren begirada hotza, bihotz berotasuna, ezin egona, urduri-tasuna isladatzen zen berauen aurpegiaren. Bitartean Mariren ahotik zera entzun zen:

– Ofizio hau ez dun erraza. Ni ez naun beti ni izaten, ez zekiat ondo ulertzen didazuen, baina ulertu edo ez, alde hemendik hau nirea dun eta.

Mari hotzikarak ematen zituen kobazulo batean bizi zen. Ikatza baino ilunagoa, otsoaren ahoa

baino beldurgarriagoa, Ipar poloa baino hotzagoa... Bi ehiztariak sabeleko arrak kosk eginda Mariren kobazulora igo ziren, zein baino zein azkarrago. Han zegoen emakumea larru gorritan, inolako urduritasun eta kezkarik gabe. Bi anaiak toeroen kapa balira gorritu ziren, baina jainkosak sartzera gonbidatu zituen. Aurreruntz zihoazela, mundua begien aurretik pasatu zitzairen. Pauso baikoitzean ikaratuta zeuden, oso izututa.

Bi gizonak adinekoak ziren eta mutil zaharrak gainera, beraz “no se habían comido una rosca”. Lehenaldia zen neska bat, bere begien aurrean biluzik zutela. Hura beste kontu bat izatea baliteke eta jainkosak zerion argi eta distiraz dastatzera gonbidatzen zituenean, berehala maitemindu ziren. Anbotoko anderea azkar konturatu zen eta zentzuz mintzatu zitzairen:

– Mundu hau ez da jokoa. Mundu hau ez da paradisia, gogorra da benetan Mundua. Latza da zentzu guztietan Mundua. Arazoak ez dira aireari putz eginda konpontzen. Lortu nahi banauzue “txakur handi” batengatik ez da izango, mardul egin beharko duzue lana eta ez ttanttaka-ttanttaka. Jokoa jarraitzeko prest al zaudete?

Itsu-itsuan jausi ziren damaren sareetan ehiztariak eta bi urteren buruan buru-belarri jardun ziren lanean inolako atsedunik gabe, andereak sorbalda gainetik begiratzen zituen bitartean, mesprezu handienaz. Urte pare horietan txakurrak balira erabili zituen. Beste txoro biak hankak miazkatzen ari ziren bitartean Mari urrezko orraziaz bere ile

luzeak leundu eta orrazten zituen inolako atsedetik gabe.

Azken proba heldu zenean Marik zera proposatu zuen:

– Zu, anaia zaharra, zoaz Aloña gailurrera eta zu, anaia gaztea, zoaz Anboto mendira. Arrano beltz gehien ikusten dituen nire maitalea bihurtuko da eta nire gorputzeko txoko guztiak ezagutu eta miazkatu ahal izango ditu. Berea izango naiz.

Azkar igo eta arnasaldi bat baino lehen bidalita-ko lekuan kokatu ziren.

Anaia zaharrenak txarrena espero zuen. Orain arteko probetan puntu gutxien lortu zituena zen eta Mari galtzea ez zuen batere atsegin. Beraz triki-mailu bat pentsatu beharrean zegoen. Gainera Aloña behe lainoz estalia zegoen eta lanbro piska bat ari zuen. Argi esanda eguzki printzei eta haizeari esker zebiltzan hegaztiak ez ziren inondik inora ikusten. Ez lituzke ezta kataloxekin zegoen katomtzak, hoberen ikusten duen hegaztiak, ere ikusiko.

Eguraldiari eta Mariri esker, bere anaia hiltzea erabaki zuen inolako errukirik gabe.

Zuzenean joan zen Anboto mendira eta han ikusi zuen bere jomuga. Gazteak arranoak altuan kontatzen ziharduen, bertan bizia jokatzen ari balitz bezalaxe. Anaia zaharrak haritz makila bat hartu, buruan kolpe bat jo eta amildegian behera bota zuen bere anaia gaixoa.

Airera begiratu, pozezko keinu bat egin eta bota zuen:

– Munduaren jabe naiz, sorginen burua neurea da.

Mari sorgina zen eta sorginek botereak zituzten. Azkar asko konturatu zen anaia zaharra berau engainatzen ari zela. Erratza hartuta iruzurtiarengana jo eta zera egotzi zion:

- Satanen semea al zara?
- Zer diozu?
- Badakit anaia hil duzula.
- Ez dizut ulertzen.

– Gezurti alena, nik zu maite zintudan, beste hori baino helduagoa zinen, baita argiago eta alaiagoa ere. Orain dena kakaztu duzu, sutan jarri nauzu eta ni haserretzeak ondorio latzak dakartza. Egin duzuna ez pentsa barkatuta dagoenik. Ezer gorrotatzen badur gezurra da.

Jarraian emakume sutuak eskuak jaso eta hizketan jarraitu zuen:

– Zeru eta lurren arteko indar naturalak, hurbil zaitezte niregana, azkar, neuk agintzen deusuet, Anbotoko dameak.

Bitartean zuri-zuri zegoen ondoko harridura ikurra: txepelduta.

Marik bere ritualarekin jarraitzen zuen:

– Zeruko ekaitzak, lurreko lurrikarak, suge eta apoak, gizon hau ezaba ezazue nire bistatik aitaren batean.

Aukeratutako lekua deskribatzea oso gatxa da, bakartia eta beroa, negargarria eta zozoa, beldurgarria eta luzarokoa...

Kasualitate batengatik edo Mariren botereenga-

tik tximistak hauts bilakatu eta lurrean egin zen zuloak bat-batekoan desagertarazi zuen gizona munduan ikusi den gauzarik sinesgaitzenezan.

– Ortzi, zu zara nire zaindaria, nire gorputzeko loria, gloria... eskerrik beroenak.

Jarraian jauzi bat egin eta eta gaztearen ingurura erori zen. Eskua beronen bihotzean jarri, energia positiboa bidali eta gaztea tentetu eta birsortu zuen inolako nekerik gabe. Berehalako batean elkarrizketa bat izan zuen eskuz-esku senar ohiarekin:

– Gazteagoa eta ederragoa izan nahi al duzu?

– Ez nago oso zihur, baina urte batzuk gutxiago ez litzaizkidake gaizki etorriko. Beraz zuk nahi baduzu, bai.

– Zure nahia niretzat agindua da.

Momentu batean gaztea 23 urteko mutiko bilakatu zen.

– Hemendik aurrera nire senarra zara, Sugar ize-naz ezagutua.

Hau aspaldiko kontu bat da ordea. Gaur egun-go egoera oso desberdina da emakume hitzak esaten duen bezala “eman umea” diskriminatuta, zapalduta, irainduta, lotsatuta, beldurrez eta menpean aurkitzen gara gizarte matxista honetan.

Nori ez litzaioke gustatuko nahi duen gizona “giza on” erlijioak ezer esan gabe aukeratzea eta norberaren menpe izatea. Elizkizunean arrak eraman beharrik gabe, etxeko lanengatik.

Mari, Anbotoko amandrea, Anbotoko damea,

Sorgina, dama... izenaz ezagutu zen Euskal Herriko toki desberdinetan mito bat ere izan daiteke, baina bere azpitik zituen gizon guztiak eta nor jaritzen zen bere gainetik?